

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak @navarra eta @nafarroagob helbideetan bateratu ditu Twitter-eko bere profil korporatiboak

Herritarrentzako arreta eman eta Gobernuak sare sozial horretan 17 kontu sektorialen bidez zabalduko interes handieneko txioak laburbilduko dituzte

Miércoles, 29 de octubre de 2014

Datorren astelehenetik aurrera, azaroak 3, Nafarroako Gobernuak Twitter-en duen presentzia hobetuko du sare sozial horretako jarduera nagusia bi profil korporatibotan bateratuz: [@navarra](https://twitter.com/navarra) gaztelaniazko edukietarako eta [@nafarroagob](https://twitter.com/nafarroagob) euskarazkoetarako.

Lehen kontutik, [@navarra](https://twitter.com/navarra), herritarrentzako arreta ematez gain, herritarren intereserako izapide nahiz zerbitzuen berri emango da (orain arte, zerbitzu hori [@infornavarra](https://twitter.com/infornavarra) kontutik ematen zen, baina kontu horrek ez du jarraituko). Gainera, [@navarra](https://twitter.com/navarra)-k birtxiotuko ditu, Nafarroako Gobernuak sare sozial horretako [profil sektorialetan](#) sortutako interes handieneko edukiak.


[@nafarroagob](https://twitter.com/nafarroagob) profiletik komunitate euskaldunari zerbitzu hori bera emango zaió.

Twitter-eko hamazazpi profil sektorial

Nafarroako Gobernuaren Twitter-eko [@navarra](https://twitter.com/navarra) eta [@nafarroagob](https://twitter.com/nafarroagob) kontu orokorrez gain, Gobernuak hainbat unitatek ere sare sozial horretan presentzia dute herritarrekin bere jarduera-sektorekoak diren gaiei buruzko komunikatu ahal izateko.

Zehazki, Nafarroako Gobernuaren profil sektorialak 17 dira. Sareko erabiltzaileen artean interes handiena pizten dutenak honako hauek dira: Turismoa ([@TurismoNavarra](https://twitter.com/TurismoNavarra), 14.100 jarraitzaileekin), Eledunaren Bulegoa [@navarragob](https://twitter.com/navarragob), 11.600ekin), Hezkuntza ([@NavEduca](https://twitter.com/NavEduca), 9.900ekin) eta Foruzaingoa ([@policiaforalnav](https://twitter.com/policiaforalnav), 6.300ekin).

Urrunago, baina mila jarraitzaile baino gehiagorekin, Nafarroako Gobernuak ondorengo profil sektorialak ere baditu: Gazteria Zuzendariordeza [@NavJoven](https://twitter.com/NavJoven), 2.800 jarraitzaileekin), Nafarroako Larrialdi Agentzia ([@navarra112](https://twitter.com/navarra112), 2.400ekin), Osasuna ([@SaludNavarra](https://twitter.com/SaludNavarra),



Datorren astelehenetik aurrera [@navarra](https://twitter.com/navarra) kanalak izango duen irudia.

1.800ekin), Enplegua ([@Navarraempleo](#); 1.700ekin) eta Nafarroako Nazioartekotze Plana([@pin_navarra](#), 1.400ekin).

Azkenik, beren berezitasunagatik edo sare sozial horretara duela gutxi heldu direlako profilek oraindik mila jarraitzaile baino gutxiago dituzte: [@CarneJovenNav](#), 998 jarraitzaileekin, Nafarroako Administrazio Publikoko Institutua ([@INAP_Navarra](#), 750), Kultura ([@CulturaNavarra](#), 700), Lanbide Heziketa([@FPNavarra](#), 700), Kirolaren Azterlan, Ikerketa eta Medikuntza Zentroa ([@CEIMD](#), 470), Abeltzaintza ([@ganavarra](#), 200), Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritza ([@GNBruselas](#), 190) eta ireki berri den Boluntarioritzako Bulegoaren profila ([@VoluntaNavarra](#)), 31 jarraitzaileekin.